

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO-BIZKAIA UREN PARTZUERGOAREN 2012-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Batzar Nagusiek hala eskatuta, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren 2012ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostenak gainera, Udal Sareak, SAren eta Bilboko Urak, SAren urteko kontuak barne hartzen ditu. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ditu eta eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren finantza egoera aztertzen du.

Legezotasunaren atalean Epaitegiak uste du Partzuergoak zuzentasunez bete duela ekonomia-finantza jardura arautzen duen lege arautegia, hiru salbuespen puntual kenduta, esleipen eta egikaritza izapideetan ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkionak. Egoera berbera azaleratu da Udal Sareak, SAn, 2012 aurreko ekitaldietan hiru espedienteren lizitazioak salbuespenak izan dituenak.

Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du Partzuergoaren eta Udal Sareak, SA eta Bilboko Urak, SA sozietate publikoen Urteko Kontuen gainean, salbuespenik egin gabe.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.

Azkenik, finantza analisisian Aurrekontu Emaitzan jasotako parametroek 2009-2012 aldian izan duten bilakaera xehetasunez jaso da; azpimarratzekoa da 2012ko Emaitza Arruntak igoera esanguratsua izan duela aurreko ekitaldiekiko, tasek gora egin izanaren ondorioz eta 2013 eta 2014an ere ildo berari eustea aurreikusten da, uraren prezioaren kostua bere onera etorri delako; horri uztartzen badiogu 2012ko ekitaldi itxieran izandako Diruzaintza Geldikin handia eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin inbertsioak finantzatzeko izenpetutako Hitzarmena, ondoriozta dezakegu eragozpenik gabe aurre egingo diola 2013-2016 aldirako onartutako Inbertsio Planari.